

Garoñarekin moztu dut!!



# Garoñarekin moztu 02



## Garuña: Endesak itxi nahi du, Iberdrolak ez

Greenpeaceko arduraduna Endesako buruekin batzartu da martxoan eta erantzun argia eman diote: haiek Garuña itxi nahi dute, baina beste jabeak, Iberdrolak, ez. Horrez gain, Fukushima eta gero energia nuklearra jada ezin dela kontuan hartu behar eta ez dutela Garoñan inbertitu nahi adierazi zioten.. [Greenpeace](#)



## Lehenengo aldiz Iberdrolaren Akziodunen Batzarrean Garuña ixtea eskatu da

Gero eta argiago dugu denok, baita akziodunek ere: Garuña arrisku handia da ez soilik osasunerako, nekazaritzarako, eta denontzako, baita akziodunentzako ere. [Albiste](#)



## Txina energia berriztagarriei esker aurea hartzen ari da

Raul Zibechik egindako artikulu honetan datozen hamarkadetan aurreikusten den energiaren egoera berria deskribatzen du eta hor energia berriztagarriei esker Txina hartzen ari den indarra.

[Albiste](#)



## Garoñatik zenbat kilometrotara bizi zara?

**Araba:** Gasteiz 43, Espejo 16, Lantaron 17, Amurrio 36, Laudio 46, Guardia 57.. **Errioxa:** Haro 37, Logroño 62...

**Bizkaia:** Bilbo 58 **Gipuzkoa:** Donostia 116 **Nafarroa:** Iruñea 129...

**Burgos:** Burgos 62, Frias 7, Trespaderne 14, Oña 16, Miranda 23



## Ospa egin Iberdrola eta Endesatik!

Gure osasun, bizitza eta etorkizuna arriskutan jartzen ari dira bi enpresa hauek. Ez eman euro bat ere ez! Moztu zeure eta zeure seme-alaben kontra ari direnenekin!

Garoñarekin moztu dut!!



## Nola egin portabilitatea

Telefonoa aldatzea baino errazagoa da, elektrizitatea eten egin gabe egiten delako. Egun batean hornitzaile berriaren faktura heltzen da eta kitto. [Faktura aztertu](#) | [Enpresak ikusi](#) | [Prezioak alderatu](#) | [Portabilitatea egin](#) | [Diploma eskatu eta ezagunak animatu](#) |

**Garoñarekin moztu** berripapera

2. alea – 2015eko ekaina - garonarenkontrakoforoa@gmail.com